



Lasarte-Orian "hobetu beharrekoak" agerian utzi parodiak. - Umorea eta kritika uzartzuz, 64. urtez parodiako aktorek herrian pil-pilean dauden gaiak oholtzaratu zituzten. Honen baitan, parodiak aurten Xirimiri elkarteak omendu nahi izan zuten bere 25. urteurrenean herrian egindako lanagatik, Unai Muñoa bertsoariak eskaini zuten bertso berezia. Bestalde, parodia ikustera herritar asko hurbildu zen lanunbat gauean eta irribarra izan zen nagusi antzerkiak irau zuten ordu luzean. Oholtzan, Okendoko garajeak eskuratzeko bete behar diren zortzi atributoak, Gure Esku Balago auzolanean herrian konponketak egiteko egitasmo berria, herria Donostiarekin lotuko duen bidegorria, txakur kaken inguruko ordenantza berria eta etologia ikastaroa izan zituzten hizpide, besteak beste. Akusatuek, Mikel Kortatu Dirulaguntzak eta Miren Etxeberria Garajegabek, sutan bukatu zuten Lasarte-Oriaren aurkako konplota egin nahia egotzita.

2 MUSIKA

Dorronsoro eta Urreiztiren urreak abesbatzen Jokoetan

Landarbaso abesbatzako Amaia Dorronsoro eta Mikel Urreiziti herritarrek bi urte lortu zituzten uztailearen 9tik 14ra Rigan, Letonian ospatu diren Abesbatzen Olinpiadetan. Bertan munduko abesbatza onenak elkartu ziren, eta tartean zen Dorronsoro eta Urreiztiren Erreterierako Landarbaso.

3 UDALA

Enprekin hitzarmenak euskararen alde

Lasarte-Oriako Udalak Baietz gurean! egitasmoaren baitako hiru hitzarmen sinatu zituen aurreko astean herriko hiru enprekin, Hoteleria del Norte, Factory eta Aldikarrekin hain zuten. Laguntza honen bitartez, enpresek haien euskara erabilera indartzea izango dute helburu.



TXINTXARRI
oporretara
doa. Hurrengo
zenbakia
irailaren 8an
argitaratuko
dugu.
txintxarri.info
orrialdean eta
sare soziale-
tan udako
jarraipena.



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

KULTURA

Urrezko ahotsak Lasarte-Orian

Amaia Dorronsoro eta Mikel Urreiziti herritarrek bi urre lortu zituzten Abesbatzen Olinpiadetan

Landarbaso abesbatza uztailaren 9tik 14ra Rigan, Letonian ospatu diren Abesbatzen Munduko Jokoetan izan da lehian eta bi urrezko domina ekarri ditu. Nagusiki Erreneriako gazteez osatutako abesbatza bada ere, Usurbil, Donostia, Lezo eta inguruko abeslariak ere badaude eta horietako bi Amaia Dorronsoro eta Mikel Urreiziti herritarrek ditugu.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Orian Alboka Abesbatza badago ere, herriko abeslari ugari Donostia edo inguruko beste abesbatzetan ari dira kantuan. Amaia Dorronsoro eta Mikel Urreiziti gazteak horietako batzuk dira. Hauek Erreneriako Landarbaso abesbatzan daude eta hilabete hasieran, Rigan ospatu diren Abesbatzen Olinpiadetan izan dira lehian.

Erreneriako abesbatzak eliz musika akonpainamenduarekin eta abesbatza misto mailatan parte hartu eta bietan urrezko domina lortu du. Mikel eta Amaiaekin izan gara eta oso pozik agertu dira egindako lana eta lortutako sariek.

Bi urre

Landarbaso abesbatzak bidai intentsoa izan zuen.

Uztailaren 10ean, 14:00etan, eliz musika akonpainamenduen mailan lehian zuen.

Junkal Guerrero Lasarte-Oriako Musika eskolako irakasle ohi eta konposagilearen "Confitemini Domino" doina eskaini zuten, besteak beste. Honetan, Amaiak piano jotzen zuen gainera.

Hurrengo egunean berri, goizean goiz, abesbatza misto-ten txanda izan zen. Honetan, Dubra konposagile letoniarraren "Rit jau jabut" edo Vytautas Miskinis-en "Pater Noster" lanak eskaini zituzten.



Amaia Dorronsoro eta Mikel Urreiziti Landarbasok lortutako dominekin. M. URREIZITI

Eta urtariletik egindako lanak bere fruituak eman zituen, uztailaren 12 eta 13an izan ziren Rigako Arena estadioan, saribanaketan, Erreneriako abesbatzako kideek bi urrezko domin eskuratu zituzten eta.

Ikastaro eta kontzertuak

Baina ez da guztia lehiaketa izan, uztailaren 10ean Celebration kontzertuan abestu

zuen gonbidatu gisa, nazioarteko beste hiru abesbatzekin batera. Honetan euskal doinuak eta eliz musika nahastu zituzten.

Uztailaren 11n, berri, Letonia eta mundu mailan oso ezagun den Kamer choir abesbatzako zuzendariarekin Janis Liepins-ekin tailerra izan zuten taldeak. Honetan Landarbasok bere errepertorioko lan batzuk findu zituen eta

Letoniako abesti bat ere ikasi zuten.

"Horrelako zuzendari batekin lan egitea esperientzia ederra da", aipatu digute herriko abeslariak.

Honetaz gain, uztailaren 12an, Javi Busto hondarribiko konposagileak eskainitako hitzaldian ere parte hartu zuten. "Axuri Beltza", "Nerea izango zen" eta "Pakearen Kantika" doinuak eskaini zituen abesbatzak.

Honetan Miskinis konposagile edo Kamer abesbatzako zuzendari ohia den Maris Sirmaisekin bat egiteko aukera izan zuten.

Uztailaren 13an aldiz, Mezapark gunean, Letoniako eta nazioarteko beste abesbatzekin batera 15.000 ahots batu zituen kontzertura gonbidatua izan zen.

Beraz, turismoa egiteko aukera gutxi izan dute gazteek. "Tarte txiki batzuk izan ditugu hiria ikusi eta beste abesbatzekin harremanetako, baina pena merzi izan du".

Danborradaren 67 urtetako historia laburbilduz

Uztailaren 17an, Lasarte-Oriako danborradaren sustatzaile izan zen Intza elkartearen bildu ziren ATLO elkarteak lagundu liburuaren aurkezpena egiteko. Honetan garai ezberdinetako danborradako zuzendariak izan ziren.

Aurkezpenean Intza eta ATLO elkarteetako zuzendaritzako kideez gain, danborradako Danbor Nagusi izan ziren Jose Miguel Berasategui, Ina Mercero, Jose Manuel Arocena, Jose Luis Vivar eta Xabier Mitxelenaen ordezko Iñaki Mitxelena bere seme izan ziren. Jose Ramon Galar-

dik ezin izan zuen parte hartu arazoi personalak zirela eta.

Egungo Danbor Nagusi eta ATLOko lehendakari den Felix Telleriak guztiei ongi etorria eman eta danborradaren historia laburki azaldu zuen. 1947 urteik honako hainbat data eskaini zituen, hala nola, lehen danborrada Intza elkarteak antolatu zuela.

Era berean, eskerrak eman zizkien guztiei danborradaren alde egindako lanarengatik eta danborrada bizirik mantentzea haiek emandako bultzadari esker zela azpimarratu zuen.

Jose Luis Vivar danbor



Lasarte-Oriako danborradaren zuzendari historikoak bildu ziren Intza elkartearen liburuaren aurkezpena egiteko.

nagusi ohiak ATLO elkarteari ekitaldi hungarigaria antolatu izana eskertu zion.

Liburuak salgai

Lasarte-Oriako danborradaren liburu historikoak guztien

eskura dagoela jakinarazi nahi du ATLO elkarteak.

Liburuak danborradaren garai ezberdinetako datu eta argazkiak aurki daitezke. Liburuari atxikia doa argazkien CD bat.

Interesa duten herritarrek *Diario Vasco*-ko delegazioko bulegora, Kale Nagusia 6, hurbildu behar dira arratsaldean 18:00etatik 19:00etara. Salmenta prezioa 22 eurotako da.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttatum Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
C-20407557
Legeko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zerota Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:
Nerea Ezagme, Maider Azurmendi, Jon Abusa E.
txinbarri@txinbarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Antola
publizitatea@ttatum.com
administrazioa@ttatum.com
Laguntzaileak:
Unai Murrino, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maialu Anitzi, Aier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Arretxe, Páko Argaitze, Edo Galardi.
Informatikoa:
Xabier Aranzaz

EUSKARA

Enpresekin euskararen alde

Udalak Hostelera del Norte, Factory eta Aldicar enpresekin hitzarmenak sinatu ditu

Lasarte-Oriako Udalak Baietz gurean! egitasmoaren baitako hiru hitzarmen sinatu zituen aurreko astean herriko hiru enpresekin, Hostelera del Norte, Factory eta Aldicarrekin. Laguntza honen bitartez, enpresek haien euskara erabilera indartzea izango dute helburu. Horretaz gain, elkar-eta enpresek euren jarduerak euskalduntzeko diru-laguntza deialdiak martxan daudela aipatu zuten udal ordezkariak.



Hiru enpresetako kideak udal ordezkariarekin.

Izan ere, egitasmoak Buruntzaldeko udalerrietan dauden hamar lagine baino gehiago erpresetan jarduerak euskalduntzeko laguntzak ematea baitu helburu.

Laguntza puntualak

Bestalde, Boris Nogales Euskara Batzordeko lehendakariak aipatu zuenez, herriaren egoitza soziala duen elkarte eta enpresek haien jarduerak euskalduntzeko diru-laguntza deialdiak ere martxan daude dagoeneko.

Laguntza hauek hainbat ataletan daude banatuak, errotulatuak, irudi korporatiboak, web orrialdeak, programa informatiboak eta kanpoko

erabilerarako dokumentazioa. Hau gutzirik, 3.500 euro-tako laguntza dagoela aipamatu zuten, baita Euskara batzordeko dirulaguntza sistemak zati bat dela ere. Nogalesek jakinarazi zuenez, aurreko urteko azaroren 1etik aurtengo urriaren 31 bitartean egindako jarduerak lagunduko dira.

Eskaerak epe horretan zehar egin ahaliko dituzte herriko enpresa eta elkarteak. Eskaera-oriak Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean eta Euskara Batzordean daude eskuragarri. Informazio gehiago nahi izanez gero, enpresa edo elkarteak 943 376 184 zenbakira dei dezakete.

UDALA

Gazaren aurkako erasoak etetearen alde

Lasarte-Oriako Udalak Gazan gertatzen ari denaren inguruan adierazpen instituzionala onartu zuen bozermanlearen batzordean. Akats bat tarteko, soilik bandera eta krespoia jartzea onartzen zela argitaratu genuen. Lasarte-Oriako udalak egiten duen adierazpena hauek jasotzen dira.

"1- Israel Gazaren aurka egiten ari den eraso berehala etetea exijitzen du, bai eta Hamas taldeak koheatak jaurtikitzeari uztea ere. Nazio Batuen Segurtasun-Konseiluak adierazitako eskaerarekin bat eginik, bizitzeko galera gehiago gerta ez dadin, horrek sufimendua eta gorrotoa areagotzen baitu eta erregio horretako gatazka historikoiari konponbide baktet-sua bilatzea urrutitzen baitu.

2- Nazioartean, eta bereziki Nazio Batuei, Arabiar Ligako herrialdeei eta Europar Batasunari, eskatzen die biztanleria zibilak babesteko behar diren neurri eta lege-mekanismoak hartzea eta behar besteko ekimenak abian jartzea, elkarren kontrako eraso horiek bertan behera uzteko eta Gazaren inbasio militarra geldiarazteko, hartara gatazka-egoeran bizi diren bi alderdiak lotuko dituen behin betiko su-etena hitzartu ahal izateko.

3- Borroka amaitutakoan eta su-etena iragarri ondoren, palestinarren eta israeldarren arteko elkarrizketak berrabiatzearen aldeko agertzen da, betiere nazioartean babes eta sostengua egokiarekin eta erregio horretan bakeko eta egonkortasuneko eszenario erailkitzeko helburuarekin, konbentzitu baikaude gatazkaren konponbidea modu baketsuan bilatuko dela, bi alderdien arteko negoziazioa zuzenaren bidez, edozein eratako interbentzio militar oro erabat baztertuz.

4- Udaltxetako balkoian Palestinako bandera krespoia beltz batekin jarriko du azken hildakoen dola ikur muduan".

HIRIGINTZA

Sasoetako etxabeak eraitsiko dira

San Martzial eta Uzturre plazako etxabeak eraitsiko dira irailetik aurrera udalak jakitera eman duenez. Hurrengo urteetan Jaizkibel plazari atxikita dauden beste hirurak ere eraisteko asmoa azaldu da. Honenkin batera, udalak bizilagunen partehartze prozesua abiatuko du espazioaren erabilera adosteko helburuarekin.

Loidi Barren Gune Urbanistikoa zaharberritze lanak egingo dira. Hain zuzen, Sasoeta auzoan bost etxabe eraitsiko dira fase ezberdinetan. Ongi bidean, lehenengo biak, San Martzial eta Uzturre plazakoak, irailaren botako dira, eta lanak hiru zabaluz hilabetez luzatuko dira. Gaitontzeko hirurak, Jaizkibel plazari atxikita daudenak, 2015ean eraitsiko dira.

Udalak 354.000 euroko inbertsioa aurreikusi du. Egun bertako lokal gutziak ordenazio kanpo daude eta bere garaietan Udalak erosi edo-eta jabeekin lokal-trukeak egin zituen.

San Ignazio jaia Basaundin

Basaundi bailaran San Ignazio egunean, uztailak 31, jaia izango da nagusi. Aurtun auzoetako festa indartzeko helburuarekin bat egin du udalak eta horrela, elkarte ezberdinen laguntzarekin Oriako Karmenak egin ziren bezala, oraingoan, San Ignazio egunez jaia izango da Basaundin inguruan.

Ekintza egitaraua antolatzeko bizilagunek herriko beste elkarteen laguntza ere izan dute. 9:00etan martxa erregulatua egingo da Buruntz-Azpi elkarteak antolatuta. 10:00etan Buruntz-Azpiren eskutik ere, galeper botatzea izango da.

Ostean, sinisidunek 11:30etan meza nagusia entzuteko aukera izango dute Oriako Kamengo kaperan.

12:00etan hasita eta 13:00ak bitartean, haur jolasak egingo dira Basaundin plazan eta ondoren, bote eta tokan aritzeko aukera izango



2006ko irudian haur jolasak Basaundin plazan erakartitako jendea.

da. 14:00etan bazkari herrikoia egingo da Buruntz-Azpi Elkartearen eta honetan parte hartzeko, elkartearen salgai jarri diren txartelak eskuratu beharko dira aurrez.

Arratsaldean beriz, 17:00etan 3 x 3 saskibaloitxapelketa egingo da Oriako frontoiko kantxan eta tenis txapelketa Bitarteko tenis-pistetan. Bi ekintza hauek Ostade

dar S.K.T.-ko kideen laguntzarekin egingo dira. 16:00etan hasita haur jolasak Basaundin plazan hartuko dute berriz eta tailerrak ere egiteko aukera izango dute txikienek antolatuzaileek jakitera eman dutenez.

21:00etan jaigunari amaiera emateko, Basaundin plazan Ibai Beriak dantzan jarriko ditu bertaraturakoak.

EPAIA

Konstituzionalak Diez espetxeratu jarraitzea ebatzi du

Rafa Diez herritarrek preso jarraituko du. Bateragune auziagatik Arnaldo Otegi, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabalaterekin batera, Espainiako Auzitegi Gorenak ezarritako kartzela zigorra osorik bete beharko du, sei urte eta erdi bere kasuan. Zigortuek Auzitegi Konstituzionalaren aurkatzutako beste helegitea atzera bota zuten Konstituzionalak aurreko astean. Espainiako auzitegiek helegiteak aurketezko esanetan duten azken aukera izanik, Estresburgora joko duela iragarri du defentsak.

Defentsak adierazi moduan, honek urteak behar izaten ditu erabakiak hartzeko eta epaia iristerako kartzela zigorra osorik bete izango lukete.

ELKARTASUNA

Palestinarren aldeko elkarretarata

Azken asteetan Israelgo ejerzitua airez, itsasoaz eta lurrez Palestinako lurretan eragiten ari den sarraskia gaitzesteko, elkarretaratzea egin zuten herritarrek Okendo Plazan. "Palestina askatu!" leloa zeraman pankartaren atzean hainbat herritar batu zen.



ATLETISMOA.



Espainiako txapelketan izan diren LOKEko gazteak eta entrenatzaileak.

Rodriguez Espainiako txapeldunorde

LOKEko atletismo saileko jubenilak Espainiako txapelketan izan ziren aurreko asteburuan. Itoitiz Rodriguez, Idoia Olasagasti, Ane Galardi, Maria Eugi eta Eneritz Busto izan ziren proba ezberdinetan parte hartu zuten atleta gazteak. Denboraldiari amaiera ezin hobea eman zioten markak bete eta zilarrezko domina bat ere ekarri zuten Valladolidetik.

Oscar Goikoetxea entrenatzailea oso pozik agertu da denboraldi osoan gazteek egindako lanarekin eta Espainiako txapelketan helbururak bete zituztela aitaputu digu.

Zilarrezko domina

Itoitz Rodriguez usurbildarrak lortu zuen Espainiako txapeldunorde titulua. 400 m. lasterketan izan zen. Sailkapen proban lehen izan zen, baina finallean ezin izan zion Jesus

Serrano madrildarrari aurre hartu. Goikoetxeak aitaputu legez, "Ittoitz ez da bere momentu onenean joan, baina ederki lehiatu da".

Ez zen final batean lehiatu zen bakarra izan, Ane Galardi jauzi hirukoitzeko finallean izan baitzen. Zortzigarren postua eskuratu zuen 11m. 29 zm. marka egin ostean.

Gainera, 100 m. lasterketako finalerdian ere izan zen eta bere marka hobetu zuen, 12.76.

Idoia Olasagastik ere proba honetan bere marka hobetu zuen eta 200 m. lasterketako finalerdietan lehiatu zen. Finalerdietan egon zen beste herritarra, Eneritz Busto izan zen. 100 metro hesi-lasterketan sailkapen proban bere marka hautsi zuen gazteak, 14,95 eta finalaurrekoan gertu ibili zen.

PALA.

Santa Ana baditu finalistak

Uztailaren 30ean, asteazkenean jokatuko dira partidak

Santa Ana pala txapelketako finalaurreko interesgarriak ikusi ziren lehengo astelehen eta asteartean Loidi-Barren pilotalekuan. Bikoteek finalerako txartela zuten jokoan eta partida lehiatuak ikusi ahal izan zituzten pilotalekura hurbildu ziren herritarrek. Asteazkenean, Astiazaran-Arluziaga eta Odriozola-Martin bikoteak izango dira aurrez aurre.

TXINTXARRI

Santa Ana Pala txapelketa amaitzear da, asteazkenean final handia eta 3. postua izango dira jokoan Loidi-Barren pilotalekuan. Baina lehengo astean, finalerdiez gozatzeko aukera izan zuten pala zaleteak.

Astelehenen, Astiazaran-Arluziaga eta Artetxe-Etxezarrere bikoteen arteko norgehiagoka ikusi ahal izan zen. Honetan Astiazaran eta Arluziaga bikote urdina izan zen nagusi hasieratik.

Bi bikoteek huts ugari egin zituzten hasieran. Hala ere, bikote urdinak errenta aterka eta hau mantentzen jakin zuten. Artetxe eta Etxezarretak



Santa Anako pala txapelketako finala uztailaren 30an jokatuko da.

zail izan zuten partidari buelta emateko.

Tanto luzeak ikusi ziren. Luze jokatu zuten eta atzelariak lan ederra egin behar izan zuten. Amaieran Astiazaran eta Arluziaga aldeko markagailua zen 15-35koa zen.

Bigarren finalerdia, berriz, berdinuagoa izan zen partida erdialdera arte. Honetan, Odriozola eta Martin bikoteak Artega eta Esnaola, iaizko finalistak izan zituzten aurrez aurre.

Tanto politik ikusi ahal izan ziren eta 13nako berdinketa ere izan zen. Baina hemendik aurrera Odriozola eta Martinek tartea ireki eta hau mantentzen jakin zuten. Amaieran Artega eta Esnaola markagailuan hurbildu ziren 31-27, baina akats batzuk

medio 35-28 galdu zuten.

Partida honetan pilotaren aukeraketaren garrantzia ikusi ahal izan zen. Odriozola eta Martinek bizkorragoa erabili zuten eta Artega eta Esnaolak motelagoa.

Final handia

Era honetara, asteazkenean arratsaldeko 17:30etatik aurrera hitzordu polita eta interesgarria izango dute pala zaleteak.

Lehenik, Artetxe-Etxezarreta eta Artega-Esnaola bikoteek hirugarren postua jokatu dute.

Ostean, 18:30ak aldera, final handia izango da. Honetan, Astiazaran-Arluziaga eta Odriozola-Martin bikoteek Santa Anako pala txapelketako garaikurra izango dute jokoan.

IGERIKETA.

Herritarrak Getaria-Zarautz zeharkaldian

Buruntzaldea IKT eta herriko hainbat igerilarik XLIV. Getaria-Zarautz zeharkaldian parte hartu zuten uztailaren 20ean.

Juan Vicente Martin, 42:25, eta Yoli Pastor, 47:45, bere mailako lehen hamar postuetan izan ziren. Martin zazpigarren izan zen Master2 mailan eta Pastor berriz, bederatzigarren emakumezkoen masterretan.

Baina aipatu legez ez ziren herritar bakarrak izan. Hauek dira lortu ahal izan ditugun beste denbora batzuk: Xabier Elizegi, 39:08; Jose Luis Sevillano, 43:57; Eñaut Fernandez de Lezea, 45:15; Izaskun Salazar, 48:21; Igor Amantegi, 50:51; Laura Igea, 51:07; Maider Lizarraga,



Iñigo Ibarburu Espainiako txapelketako podiumean.

BURUNTZALDEA IKT

55:02 eta Zigor Gallardo 1:00:19.

Espainiako txapeldunorde

Lehengo astean, Buruntzaldea IKT-ko gazteen Espainiako txapelketako kronika egin genuen.

Honetan Iñigo Ibarburuk lortutako Euskadiko bi errekorrak nabarmendu bagenituen ere, 100 m. tximeleta proban 97 urteko gazteen artean Espainiako txapeldun orde ere izan zela azpimarratu behar da.

LABURRAK.

Bazpi taldea bigarren Aztiriri igoeran

Bazpi txirindularitza eskolako gazteak uztailaren 19an bi proba izan zituzten, Aztiriri igoera eta Txapel Gorri proba. Jubenilek taldeko bigarren postua eskuratu zuten Aztiriri igoeran.

Proba honetan taldeko sei txirindularik parte hartu zuten eta bi gazte izan ziren lehen hamarren artean, Jon Ander Unanue bosgarren postuan izan zen eta Koldo Velasco hamargarren.

Ordiziako Txapel Gorri proban ere kadeteak in ibili ziren. Iñigo Altuna herritarra zortzigarren iritsi zen helmugara eta Luken Carbayedak hamabosgarren.

Ostadar SKT-ko jantziak irailen banatuko dira

Ostadar SKT elkarteak jakin arazi duenez, 2014-1015 denboraldiko kirol jantziak irailen jasoko dira elkarteko egoitzan.

Elkarteko arduradunek azaldu dutenez, arazo batzuk egon dira jantzi berriekin eta irailko lehen astean banatuko dira guztiak. Jantziak jasotzeko egunak eta orduak Ostadar SKT elkarteko egoitzan jakin araziko dituzte.

Kirol instalazioak abuztu

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakinarazten du, mantentze lanak direla eta abuztuaren 1etik 17ra kirol instalazioak itxita egongo direla. Era berean, abuztuko igandean ere ezingo dira erabili. Bazkideek Urnietako kiroldegia izango dute erabilgarri.

— Agenda —

Osteguna 31, egun osoa, Basaundi bailara



San Inazio jaiak biziberritzen

Basaundi bailarako lagunek San Inazio jaiak ospatu dituzte uztailaren 31an. Kirola, jokoak, lehiaketak...adin guztiaketao lagunek gozatzeko ekintzak antolatuta dituzte egun guztian zehar. Auzotar eta lasarteoriatar guztiak gonbidatzen dituzte bertara hurbiltzera.

09:00etan, martxa erregulatu Buruntz-Azpi Elkartean eskutik
10:00etan, galeper botatzea Buruntz-Azpi Elkartean eskutik
11:30etan, San Inazio eguneko meza nagusia Oriako Karmengo kaperaun.
12:00etatik 13:00etara, haur jolasak.
12:30etan, Pote eta Toka Basaundi plazan. Buruntz-Azpi elkartean eskutik.
14:00etan, Bazkari herrikoia Buruntz-Azpi elkartean. Bazkariko tiketak salgai elkartean.
16:00etatik 18:00etara, haur jolasak.
17:00etan, 3 x 3 saskibalo txapelketa Oriako saskibalo kantuan. Ostadar S.K.T.-ren laguntzarekin.
17:00etan, Tenis txapelketa Bitarteko tenis pistetan. Ostadar S.K.T.-ren laguntzarekin.
18:30etan, haurrentzako tailerrak.
21:00etan, Ibai Berriak taldean eskutik dantzaldia.

deren kontzertuetaz gozatzeko aukera izango da:
 Kauta
 Txapelpunk
 Boston jai

Osteguna 31, San Inazio eguna
09:00etan, Zikiri prestaketaren hasieraz izango da.
09:30etan, Meza.
11:30etan, errebote partida.
14:00etan, Zikiri jana.
18:00etan, Gorriren show-a.
22:15etan, Olinpiaden amaiera.
00:00etan, Jaien amaiera traka eta suzirikin.
Amaitzeko, musika txosnan.

Astigarraga

Lehiaketa

Abuztuaren 3a arte

Santio Jaietan ateratako argazkien lehiaketa martxan jarri du gazte asanbaladak. Argazkiak bidaltzeko helbidea: astirrako.gazteasanbalada@gmail.com. Argazkiak abuztuaren 3a arte bidali ahaliko dira. Argazki hoberekin herriko tabernetan erakusgai jarriko dira bozkatzeko.

Usurbil

Musika

MIKEL LABOA PLAZA

Osteguna 31, 21:00etan

Laboaren UZTAlia, bakarariaren emanaldi zikloaren barruan, Beñat Antxustegiaren kontzertua.

Lasarte-Oria

Musika

BASAUNDI PLAZA

Larunbata 02, 19:30ean

Audinia taldeak Haizea ber azken disko dinoak eskainiko ditu. Zeltiar eta rock-a nahasten dituen abestiak dira.



TXIMISTARRETA PARKEA

Abuztuak 23, 19:30ean

Country, folk eta bluegrass doinuez gozatu ahaliko da Howdy taldearen eskutik. Kultur Kale Zikloaren barruko ekintza.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Uztailaren zehar

Paxki Fernandez-en margo erakusketa izango da ikusgai. Lanak salgai izango dira gainera.



Zubieta

Jaiak

Astelehena 28, Haurren eguna

10:00etan, Jolasen hasiera.

13:30etan, Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala, eta gure kontu postrea eta sorpresa.

16:00etan, Jolasen jarraipena.

Jarraian, haurrentzako txokolatada eta buruhandiak.
 19:30etan, Ur jolasak.

Asteazkena 30, Gau pasa eguna

00:00etatik goizaldera arte, hiru tal-

— Herritarren txokoa —

Donemiliagan galdutako gauzak

Ttakan Kultur elkarreak jakinarazten du, Donemiliagako Udaleku itxietan galdutako edo hurrek utzitako gauzak eskuragarri daudela Ttauneko bulegoan honako ordutegian, goizez 8:00etatik 13:00etara eta arratsaldean, 15:00etatik 18:00etara. Abuztuaren itxia egongo da bulegoa.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenero bezala, gaur uztailaren 28, odol ateratzeak izango dira. Beti bezala, Osasun Zentroan, arratsaldekotik 17:30etik 20:30era izango da hiztordua.

Anima zaitzete, odolora ordezkaezina da eta odol falta dago!

Muntteri-AEK zoketeta

Muntteri-AEK euskaltegiak jakin arazten du, "asteburu pasa bi lagunentzat aukerako lekuan" zoketabaren sariduna 002 zenbakia izan dela.

Zuen oharrak jarri, kezak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Aniztasuna lantzeagatik airtzea eta proposamenak

Gure lanaren jatorria Lasarte-Oriako eskola errealitateari emandako erantzun bat da, bi eskola publiko desorekatu aurkezten dizkigun errealitateak. Batek atzeratit jatorria duen ikasleko kontzentratzen du (20 nazionalitate ezberdino), maila sozioekonomiko baxuagoko eta sozialki integrazio txikiagoa duten familiez osatua.

Lan hori publikoki ikastetxeko gurasoei eskertu behar zaie, integrazioaren alde Guraso Elkartean eskainitako denboragatik. Bereziki, Aniztasunaren Batzordeari.

Beraiei eskertu posible izan da Lasarte-Oriako ikastetxe publiko batek (baliabide gutxiarekin) ekainak Iean Hezkuntza Sailburuaren eskutik Euskadi mailako Praktika Onen Lehen Saria jasotzea. Eta ez da ahaztu behar Guraso Elkarre hau dela hiru aldiz jarraian sartua izan den Euskadi mailako hezkuntza zentru bakarra.

Pablo Bariok zehazturiko udalereari ere eskertu behar diogu, sozialki duen bere inplikazioagatik, foru irekiak: aniztasun sarea, Baketik-ek

moderatutako elkarbizitza foroa, etab. Jaiotzez Lasarte bezela esan dezaket ez nituela lehenago horrelakoa ikusi.

Udaletxea bide horretatik lan egitera animatu nahi dugu, baina plus batekin. Iragandako estereotipoak gaituzten lagunduko duen plus bat eta integrazioaren alde erabakiak hartzen lagunduko diona.

Gaur jasotako sari eta errekonozimenduak beharrezkoak dira, aldari hitz ederrez gain, orain arte alderdi politiko guztiematik jaso ditugunak, ekintza zehatzet lagunduta etorri behar dute.

Martin Garitano Aldun Nagusiaren presentzia aprobetxatuz, Foru Aldundien inplikazio handiagoa eskatu nahi genuke bere bi departamenturen bidez:

a) Gizarte Politika Departamentutik:

Bere kompetentzien artean "diskriminazio gutxiagoko eta baztertutako pertsonen inplikazio handiagoa den gizarte bat lortzen laguntzen" duenez,

eskatzen diogu dei dezala Gizarte Inklusiorako Aholku Batzordea eta jarraipena egin diezaiola Lasarte-Oriako eboluzioari.

b) Kultur Departamentutik:

Gutzietisako gizarte esparruetara Euskara hizkuntza moderno bezela eboluzionatzen eta zabaltzen lagundu dezala, eta sektore batzuetatik sufritzen duen blokeoa galaraz dezala.

Eta azken honenkin erlazioan, ekanean medioetako titulartean ikusi ahal izan genituen Iñigo Urkullu (Lehendakaria) eta Cristina Uriarte (Hezkuntza Sailburua)-ren hitz batzuk hartzen ditut nere: "Euskarak kanpoan irun utziko ez duen mugimendu soziala behar du" eta "Atzeritarrek euskeraz mugul daitezzen aukerak eskeini behar ditugu".

Lasarte-Oriako eskolaketako umeekin gaur egiten degun integrazio esfortzak gure herri aniztaren elkarbizitza markatuko du bihar. Aukera gure eskuetan dago.

Pello Sanchez
 Burunpze Guraso elkartea

Erketz EDT euskal dantza hedatzen

Italiako herrian egiten den Nazioarteko folklore jaialdian parte hartu zuen herriko taldeak

Erketz EDT-ko lagunek ez dute atsedeen izan uztaillean. Uztailaren Setik 13ra Italia aldean izan ziren bidaia. Florentzia, Erroma, Naples edo Pisa bisitatu zituzten, baina Sorrentoko herrian egiten den nazioarteko jaialdian ere izan ziren euskal dantzak erakusteko. Aurreko asteburuan berri, Burgoseko Adrada de Haza herrixkan izan ziren. Bi bidaia hauetatik oso pozik bueltatu ziren dantza taldeko kideak.

TXINTXARRI

Gure ohitura eta kultura nazioartean hedatu eta ezagutzera emateko hainbat era daude. Kultur taldeek beste herrialdeetara egiten dituzte bidaiaik dira horietako bide bat. Eta oraingoan, uztailaren Setik 13ra hain zuzen ere, Erketz Euskal Dantza taldea izan da gure ondare kulturalerako lagin bat Italiara eraman duena. Zehazki, Festival Internazionale del Folklore Città de Sorrento jaialdian izan zen. Eta aurreko asteburuan, Burgosen izan zen.

Erketzeko Ruben Arranz lehendakariak azaldu digunez, "oso gustura ibili dira Italia aldean, baita Burgosen ere".

Bidai lazea

Dantzarri, musikari eta taldeko hainbat lagun uztailaren 5ean atera ziren Lasarte-Oriatik autobusean.

Lasarte-Oria eta Naples artean dauden kilometroak ordea ez zituzten jarraian egin, bidean Florentzia eta Erroma ezagutzeko aukera izan baitzuten.

Besteak beste, Erromako Coliseo eta Fontana di Trevi edo Florentziako Santa Mari del Fiori eliza, zubi zaharra edo Palazzo Vecchio bisitatu zituzten.

Sorrentoko jaialdia

Era honetara, Erketz EDT-ko lagunak Napolesera iritsi ziren eta hiru ekitaldi eskaini zituzten Nazioarteko Folklore jaialdiaren barruan.

Hautetan Grezia eta Bulgariako beste lau dantza eta musika taldeen batera parte hartu zuten.

Lehenik dantzarri eta musikariek herriko kaleetatik desfilea egiten zuten eta ostean, emanaldiaren txanda zen. Herriko taldeak agurra eta desafioa, ezpata-dantza, arku dantza eta Gasteizko



Erketz EDT-ko dantzarri, musika eta lagunak Pisako dorre eta Duomo edo katedrala ikusten dela.

A. ADURIZ

soka dantza eskaini zituen. "Bertako jendeari asko gustatu zitzizaien, batez ere ezpata-dantza ez delako oso ikusia".

Turismoa egin

Eta ekitaldiak egin ostean ere, Naples inguruko hainbat herrixkara hurbildu ziren Erketz EDT-ko lagunak.

Honela, Pompeia, Vesuvio sumendia igoto zuten edo Capri irlara ere hurbildu ziren.

Lasarte-Oriara bueltan, Pisan ere egin zuten geldialdi-ditxo bat. Bertan dorre famatuarekin hainbat argazki atera eta alde zaharra ikusi zuten.

Uztailaren 13an "autobusean ordu pila egin ostean" iritsi ziren herrira.



Erketz EDT-ko lagunak lehego asteburuan Burgosen eskaini zuten saioan. B. UGARTEBURU

Burgose aldean

Baina astebeteko atsedenaaldia ere ez zuten izan taldeko kideek. Izan ere, uztailaren 19 eta 20an, Burgoseko Adrada de Haza herrixkara egin baitzuten bidaia.

Larunbat arratsaldean bertako eta Avilako dantza taldeen emanaldia eskaini zuten. Agurra eta desafioa, Gasteizko zortzikoa eta Valcarlosoko Inauteriko zati bat eskaini zuten Erketzek.

Udako Txokoetan aniztasuna eta txikien jaialdia

TXINTXARRI

Gure herrian 70 herrialdeetako pertsonak bizi dira eta hainbat herrialdeko gazteok datoz gurean uda igarotzera. Hau dela eta, Udako Txokoetako LH3 eta LH6 urtea arteko gazteok nazioarteko jokoak egin zituzten aurreko astelehenean. Honetaz baliatuz, udan herrira datozen

haur ukrainarrei harrera era egin zieten.

Era honetara, Munduko jokoak ikasi ahal izan zituzten Udako Txokoetako handienek uztailaren 21ean.

Lau taldeetan banaturik nazio ezberdinetako jokoak egin zituzten, hala nola, karramarro harrapaketa jokia, mimikazko jokoak edo zenbakiekien zer ikusia zuten jokoak. Azken honi lotuta

gainera, arabieraz zenbakiak nola esan ikasi zuten.

Ukrainarrei harrera

Baina, jokoekin hasi baino lehen, harrera berezi bat ospatu zuten Udako Txokoetako lagunak.

Haur sahararren antzera, Ukraina eta zehazki Txernobil eremutik hainbat haur eta gazte datoz uda gure herrian igarotzera.

Udako Txokoetan hiru gazte daude, Valentin Addayta, Tania Palagecha eta Dima Stryzhak eta haueri harrera berezia antolatu zitzaion.

Txokoetako kideek agurra dantzan eta abesti batzuk eskaini zizkieten. Gainera, opari bana ere jaso zuten gazteok.

Jaialdia

Bestalde, 3 eta 4 urte arteko haurrek osteguna eguerdian

Santa Ana jaialdia ospatu zuten Okendo plazan.

Honetan ipuin beleak, behiak, txanogorritxu eta ehiztariak, piratak, pailazoak eta Doraemon talde bat ikusi ahal izan genituen dantzan.

Kolore eta musikaz bete zuten plaza emanaldi atsegin eta dibertigarria osatuz.

Amiaeran, begiraleek ezusteko bat ere eman zuten Kolore, kolore doina dantzatuz.



Ukrainatik uda igarotzera datozen haurrei agurra dantzan zieten Udako Txokoetako lagunak.



Txikien Santa Ana jaialdia ospatu zuten Okendo plazan. Guraso ugari bildu zen haurrak dantzan ikustera.